



Zer da zuretzat garrantzitsuena enpresetan eta erakundeetan euskara errotzeko?

ERABILERA

Enpresek irabazi gisa ikusi behar dute euskarari bidea ematea. Kontzientzia piztea eta laguntza ematea. Euskararen onurak zabaltzea eta egunerokoan islatzea.

Euskara eta zaugarritasuna lotzeko bideak lantzea:

- Metodologia desberdinak
- Atxikimendua landu
- Egokitzapen sektorialak: ostalaritza, zaintza,....
- Erreferente berriak: irakasle kanpotarrak,....

Aktoreek baliagarria sumatzea euskara.

Enpresen aldeko jarrera gakoa da, eta erakundeek, esate baterako, Lanbiden euskarari leku duina ematea.

Dauden tokian txertatzea helburu izatea.

ZUZENDARITZA

Zuzendaritzatik inplikazioa eta lan talde osoaren parte-hartzea.

Enpresaren eta langilearen borondatea.

Enpresetan euskara errotzeko gakoa erabilera erreala bermatzea da. Horretarako hiru ardatz behar dira: zuzendaritzaren lidergoa, espazio naturalak eta langileen ahalduntzea.

Enpresek beharra somatu behar dute. Herritarrek, bezeroek,....eskatzeaz gain, derrigortasunak zehaztu behar ditu administrazioak.

ERREFERENTEAK

Euskara lehen mailara ekartzea, erreferente diren politikari, kirolari, enpresari ezagun eta pertsonaiek euskara sustatzea beharrezkoa da, euskara “ospetsu” egin behar dugu.



Zer da zuretzat garrantzitsuena enpresetan eta erakundeetan euskara errotzeko?

BALIABIDEAK

Dirulaguntzek eta bestelako baliabideek lagundu dezakete euskara sustatzeko ekimenak enpresetan eta erakundeetan modu egituratuan eta iraunkorrean garatzen, gero eta eragile gehiagoren inplikazioa bultzatuz.

ATXIKIMENDUA

Euskara ikasteak bakarrik ez du ziurtatzen euskara erabiliko denik. Atxikimendua ere landu behar dugu.

BEHARREI ERANTZUN

Ulertzea ez dagoela formula bakarra guztiontzat baliagarria dena. Pertsona bakoitzak behar desberdinak dituenez, gai izan beharko ginateke beharrei erantzun egokia ematen.

EUSKARAREN BETAURREKOAK

Motibazioa lantzea, euskararen betaurrekoak jantzi eta aukerak baliatzea, norbanakoak inguruan eragiteko eta zuzendaritza eredugarri izan eta lerrokatuta egotea.